



ETXEA

Doinua: Gure eliz dorreko

Neurria: Kopla txikia. Bi puntuko txikia (ip) / Lauko txikia (hg)



Uxue Alberdi Estibaritz
(1984 Elgoibar, Gipuzkoa)

- 1 Etxeak behar ditu leihoak **mundura** kortinak haizetan ta iturrian **ura**.
- 2 Etxea da egurra lurra ta **buztina** bihotzak babesteko propio* **egina**.
- 3 Etxeak behar ditu belarridun **hormak** emozioen giltzak gorputzaren **formak**.
- 4 Etxea bedi hotzak denaren **sutondo** onartzen gaituena gaizki edo **ondo**.
- 5 Etxeak ez du behar ateko **zakurrik** inork ez dezan izan sartzeko **beldurrik**.
- 6 Etxeak behar du non eseri, non **etzan** bihar altxako denak atsedean har **dezan**.
- 7 Etxea zain bezate limoiak*, **gaztainak** lagunen beroak ta sukalde **usainak**.
- 8 Etxeak ditu katu beltzak **teilatuan** unibertso izar denekin **tratuan**.



Ainara Aspiazu AXPI



propio = apropos, nahita

limoiak = zitroinak

